

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Hiri hondakin solidoak biltzearen 2021eko lehen hiruhileko tasa ordaintzeko epea jakinarazteko eta tasa bera kobratzeko iragarkia**

Ordaintzeko epeak:

A) Borondatezko epea: 2021eko apirilaren 12tik ekainaren 12ra bitarteko egun baliodunetan (egun bi horiek barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, Hiri hondakin solidoak biltzearen 2020ko hirugarren hiruhileko tasaren ordainagiriak.

B) Betearazte aldia: 2021eko ekainaren 14etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko lekua eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabankfinantza erakundearen udalaren duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Bo210326AEk.

Oyón-Oion, 2021eko martxoaren 26a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA CABEZÓN**